

2018-2021.

Etorkizuneko
zinemaldia
prestatzen



DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

Zinemaldiaren Zuzendaritzak oinarritzko hiru helburu proposatzen ditu:

1. ADMINISTRAZIO OROKORRA

Lanpostuen katalogoa, balorazioa eta organigrama berria osatzea eta administrazio-kontseiluak onartzea.

Datozen lau urteetan onartuko den katalogoa edukiz betetzea, ikuspegi teknikitik zein ekonomikitik, modu mailakatuan.

2. ATZERRIKO KOMUNIKABIDEAK

Atzerriko komunikabideen presentzia areagotzea Zinemaldian, eta horietako ikus-entzunezkoen adituei gure Zinemaldia eta hiria/lurraldea/ autonomia-erkidegoa/herrialdea ezagutzeko aukera eskaintzea, alderdi horiei buruzko iritziak komunikabideotan azal ditzaten. Zineman espezializatutako argitalpenek, trade magazine-ek eta munduko agentzia nagusiek gure Zinemaldiaren gainean jarraipen ona egiten duten arren, munduko komunikabide nagusiek ere gure Zinemaldia bisitatzea lortu nahi dugu.

3. ZINEMAGILE BERRIAK

Zinemaldia, talentu-hazitegi. Zinemaldiak urteak daramatza zinemagile berrien alde apustu egiten, harrobia lantzen, bere sailak hornitu ahal izateko etorkizunean. Horretarako, ondoko jarduerak eta sekzioak lantzen ari da:

- a. EIECINE. Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketa ekitaldi gero eta sendoagoa da, eskola gero eta gehiagok eta nazioarteko ospe handiagokoek adierazten dutelako parte hartzeko asmoa.
- b. IKUSMIRA BERRIAK. Ikus-entzunezko proiektuak egiteko egonaldien programa, Nazioarteko Zinema Ikasleen Topaketa bezala, Tabakalerarekin batera antolatzen da, eta gero eta oihartzun handiagoa du. Aurten, 200 proiektu baino gehiago aurkeztu dira hautaketara.
- c. ZUZENDARI BERRIAK. Zinemaldiaren sail ofizial garrantzitsuenetako bat da; zuzendarien lehen edo bigarren filmak aurkezten ditu.
- d. ZINEMA-ESKOLA. Gipuzkoako Foru Aldundiak Zinema-eskola bat sortu du Tabakaleran, eta Zinemaldiak parte-hartze aktiboa izango du, Euskadiko Filmategiak eta Tabakalerak berak bezala.

Zuzendaritzaren datozen lau urteotarako helburuetako bat da zuzendarien lehen eta bigarren filmak Sail Ofizialean lehia daitezela. Zinemaldiek urteko lanik onenak erakutsi nahi dituzte nork bere sekzioetan, baina betekizun etiko bat ere badute; talentu berriei lekua eskaintzea eta zinemagile berriak deskubritzea.